

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2021eko irailaren 30a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:40

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oliden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieta, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Priede Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren 2021eko otsailaren 25eko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
- 2.- Bi udal-langileri irekitako diziplina-espedienteen berri ematea.

- 3.- Berrestea, egoki bada, 2021eko irailaren 16ko 467 eta 468 zenbakidun alkate-dekretuak.
- 4.- Onartzea, egoki bada, udal-aurrekontu propioaren 9/2021 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea, kreditua transferitzeko modalitatean.
- 5.- Onartzea, egoki bada, ordenantza fiskalen eta beren eranskinen aldaketa, eragina 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izango duena.
- 6.- Onartzea, egoki bada, AGITAX Gipuzkoako Taxi Elkartek bidalitako 2022rako taxi-tarifa urbanoak.
- 7.- Onartzea, egoki bada, herri-baratzetako tarifak 2021. urterako.
- 8.- Onartzea, egoki bada, Orioko Zaharren babeslekua taberna-jatetxearen zerbitzua eta garbiketa- eta mantentze-zerbitzua prozedura ireki bidez kontratatzeko baldintza administratibo partikularren eta baldintza teknikoen agiriak.
- 9.- Eskariak eta galderak..

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN 2021EKO OTSAILAREN 25EKO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira, **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarraren 2021eko otsailaren 25eko ohiko bilkurako akta.

2.- BI UDAL-LANGILERI IREKITAKO DIZIPLINA-ESPEDIENTEEN BERRI EMATEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du diziplina-espediente bana ireki diela bi udal-langileri, kultura eta jaietako teknikariari eta kirol eta gazteriako teknikariari, ustez diziplinazko arau-hauste larriak eta oso larriak egin dituztelako; adierazten du, baita ere, eskertzen diola udalbatzarrari gai zail honetan erakutsi dion babesa eta ulerberatasuna.

Lourdes Salsamendi zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta atxikimendua erakusten dio alkateari eta, aldi berean, adierazten du kontu desatsegin baten aurrean gaudela eta bi

udal-langile horiei irekitako diziplina-espedienteen tramitazioan parte hartzen duten agenteen zuhurtzia eta profesionaltasuna eskatzen duela gaiak.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak (ORAIN) hartzen du hitza, eta berak ere atxikimendua erakusten dio alkateari eta adierazten du espero duela bi udal-langile horiei irekitako diziplina-espedienteak zorroztasunez, zuhurtziaz eta profesionaltasunez tramitatuko direla.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

3.- BERRESTEA, EGOKI BADA, 2021EKO IRAILAREN 16KO 467 ETA 468 ZENBAKIDUN ALKATE-DEKRETUAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 2021eko irailaren 16ko 467 zenbakidun alkate-dekretuaren bidez, erabaki da 18.228,80 euro ordaintzea BPXPORT XXI SLU entitate merkantileko langileei, 2020ko kontraprestazio ekonomiko gisa; eta 37.186,75 euro, 2021eko kontraprestazio ekonomiko gisa. 2021eko irailaren 16ko 468 zenbakidun alkate-dekretuaren bidez, berriz, erabaki da 4.098,80 euro ordaintzea BPXPORT XXI SLU entitate merkantileko 15 langileri, soldata osagarri gisa, udal-kiroldegia itxita egon zelako 2021eko urtarrilaren 29tik otsailaren 12ra, COVID-19ko pandemia dela eta.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak egindako proposamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

BERRESTEA 2021eko irailaren 16ko 467 eta 468 zenbakidun alkate-dekretuak.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-AURREKONTU PROPIOAREN 9/2021 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 9/2021 zenbakidun espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 135.414 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2021eko irailaren 23an egindako proposamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2021eko aurrekontuari dagokion 9/2021 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 135.414 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza–Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko lekua: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORDENANTZA FISKALEN ETA BEREN ERANSKINEN ALDAKETA, ERAGINA 2022KO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA IZANGO DUENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Gaia 2021eko irailaren 16 eta 23ko Ogasun eta Pertsonala batzordeetan diktaminatu da, segidan zehazten den eran:

1.- Diktaminatzen da **MANTENTZEA** eta **EZ IGOTZEA** Izaera Urbanoko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari dagozkion karga-tasak.

Familia ugarietarako hoberiek indarrean segituko dute, eta baita ere ondoren zerrendatzen diren errekareruak:

Subjektu pasiboaren edo hirugarrenen (alokairuagatik edo erabileraren lagapenagatik) ohiko etxebizitza ez diren bizitoki erabilerako ondasun higiezinak %50eko errekareru aplikatuko die Orioko Udalak zergaren kuota likidoaren gainean. Errekargu hori zergaren subjektu pasiboari exijituko zaie eta zergarekin batera sortuko da; likidatu ere, urtero likidatuko da, kuotarekin batera.

Errekargu hori aplikatzeko, bizitoki-erabilerako higiezinak honako hau hartuko da: katastroan etxebizitza erabileradun gisa jasota dagoen lokala. Etxebizitzaren eranskinak ere sartuko dira, erregistroan finka bakar gisa ageri badira. Eragin horietarako, bizitoki-erabilerako higiezin bat ohiko etxebizitza dela kontsideratuko da, baldin eta, zerga sortzen den datan, Udaleko erroldan okupatzaileen ohiko etxebizitza gisa jasota badago higiezin hori.

Errekarguaren salbuespenak:

1. Ondasun higiezinaren gaineko zergen hobariren bat gozatzen dutenak.
2. Udaleko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren matrikulan alta emandako jarduerari atxikitakoak.
3. Zergaren sortzapenaren aurreko urtean 9 hilabete baino gehiagoz alokatuta egon diren etxebizitzak (alokatuta bakarrik; ez dira sartzen erabilera-lagapenak). Honako dokumentazioa aurkeztu beharko da, salbuespena aplikatzeko:
 - Salbuespena aplikatzeko eskaria.
 - Alokairu-kontratua, behar bezala datatu eta sinatuta. Kontratu horretan agertu behar du higiezinak etxebizitza-xedea edo erabilera izango duela.
 - Alokairua kobratu izana justifikatzen duten agiriak, zergaren sortzapenaren aurreko urteari dagozkionak.

Gipuzkoako Foru Ogasunari alokairu-kontratu horien berri emango zaio.

4. Zahar-egoitzatan erroldatutako pertsonen titulartasuneko etxebizitzak. Salbuespen hau aplikatuko zaio, bakar-bakarrik egoitzan sartu aurretik pertsona horren ohiko etxebizitza zenari.
5. Herentzia baten parte diren etxebizitzak, titularra hil eta bi urteko epean.
6. Zergaren sortzapenaren aurreko urteko azaroan edo abenduan erositako etxeak, non, nahiz eta urtarrilaren 1ean inor ez egon erroldatuta, erroldatzeko tramitea egin den zergaren sortzapenaren urteko lehen hiruhilabetean.
7. Legez aurri-egoeran deklaraturako eraikinetan kokatutako etxebizitzak.
8. Katastro urbanoaren erregistroan bi finka independente osatzen dituzten etxebizitzak, baina etxebizitza bakar modura erabiltzen direnak. Zirkunstantzia horien balorazioko txostena udal zerbitzu tekniko eskudunek egingo dute.
9. Lurzoru urbanizaezinean eta lurzoru urbanizagarrian kokatutako etxebizitzak.
10. Urbanistikoki antolamenduz kanpokotzat kalifikatutako eraikinetan dauden etxebizitzak.
11. Ohiko etxebizitza ez diren etxebizitzak, baldin eta urteko gutxienez 300 kWh-ko energia-kontsumoa frogatzen badute.

Zergaren sortzapenaren aurreko urtean izandako elektrizitate edo gas kontsumoen fakturak aurkeztuta frogatuko da zirkunstantzia hori.

12. Zaintza pertsonalak behar dituzten mendeko pertsonen jabetzako etxebizitzak, baldin mendeko pertsona hori bera zaintzeaz arduratzen den familiarraren etxean bizi eta errolatuta badago. Salbuespen hau aplikatzeko beharrezkoa izango da utzi den etxebizitza hori mendeko pertsonaren ohiko etxebizitza izatea, familiarraren etxebizitzara joan aurretik.

Diktaminatzen da nekazaritza-izaerako ondasun higiezinaren gaineko zergari aplikatzen zaion karga-tasa %1,10ean **MANTENTZEA ETA EZ IGOTZEA**.

2.- Diktaminatzen da **MANTENTZEA ETA EZ IGOTZEA** Orioko jarduera ekonomikoen gaineko zergaren exakziorako hainbat ahalmen arautzen dituen ordenantza fiskalean ezarritako gutxieneko kuoten gehikuntzarako koefiziente bakarra.

3.- Diktaminatzen da izaera urbanoko lurren balio-igoeraren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala egokitu egin behar zaiola Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziari, izaera urbanoko lurren balio-igoeraren gaineko zerga arautzen duen uztailaren 5eko 16/1989 Foru Araua egokitzeko dekretuan ezarritakoaren arabera.

4.- Diktaminatzen da **MANTENTZEA ETA EZ IGOTZEA**, orokorrean, trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren tarifak, salbuespen honekin: turismoen eta beste ibilgailuen tarifen azken bi tarteak %3,3 igoko dira.

Indarrean segituko dute zerga hori arautzen duen ordenantza fiskalean ezarritako hoberi guztiek.

5.- Diktaminatzen da **MANTENTZEA ETA EZ IGOTZEA** eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari dagozkion tasak.

Indarrean segituko dute zerga hori arautzen duen ordenantza fiskalean ezarritako hoberi guztiek.

6.- Ondoren zerrendatzen diren tasei aplikatzen zaizkien tarifak **IGOTZEA** diktaminatzen da:

- Kutxazain automatikoak eta bide publikotik irismena duten salmenta-makinen instalamendu eta funtzionamendua.

Finantza erakundeek edo gordailu-erakundeek fatxadetan kutxazain automatikoak instalatu eta funtzionamenduan edukitzeagatiko zerga-tasa urteko 464,85 eurokoa izango da.

Tasa honen b) atala bere horretan mantentzen da, aldaketarik gabe.

- Orioko Eguneke Zentroan ile-apaindegi zerbitzuak ematea.
- Udal kanpinaren erabilera.

Dagozkion tasak %1,5 igotzea diktaminatzen da, orokorrean.

- Udal-kiroldegiaren erabilera
- Tenis, paddle eta squasheko udal-pisten erabilera.
- Arraunetxeko instalazioen erabilera.

7.- Diktaminatzen da ondoren zerrendatzen diren tasei aplikatzen zaizkien tarifak MANTENTZEA eta EZ IGOTZEA:

- Udal erabilera publikoko lurretan zangak eta hobiak irekitzea.
- Udal erabilera publikoko lurak okupatzea (ezarritako hobariak indarrean segituko dute).
- Ibilgailuak sartzea espaloian barrena eta bide publikoa erreserbatzea modu eskusiboan aparkatzeko, ibilgailuak geratzeko eta edozein motatako salgaien zabalenerako.

Tarifa berri bat (tarifa 1) ezartzen da garajerik gabeko lokaletarako: 48,19 euro gehi eragiketa honetatik ateratako emaitza: espaloiarekin lotzen den sarbidearen zabaleraren metro linealen (edo frakzioaren) kopurua bider 11,08 euro metro lineal bakoitzeko.

Tarifa hauek ere egokitu egiten dira: Pasabide iraunkorreko plakak 33,00 euroan ordainduko dira eta pasabide iraunkorreko zutoinak 55,00 euroan.

- Indar elektrikoa, ura, gasa edo beste edozein fluido garraiatzeko linea, hoditeri eta galeriak.
- Udal erabilera publikoko lurak okupatzea, mahai, aulki, tribuna, oholtza eta antzeko beste elementuak erabiliz, irabazteko asmoa dagoenean; tarifa hauek ezartzen dira:
 - Bere buruari eusten dion egitura, metro koadro edo frakzio bakoitzeko eta urteko: 41,41 euro.
 - Egitura erdifikoa, metro koadro edo frakzio bakoitzeko eta urteko: 55,22 euro.
 - Kendu egin da 1. ataleko tarifari aplikatzen zaion %50eko hobaria. Horrela, A zonako establezimendu publikoei tarifa hauek aplikatuko zaizkie, udal erabilera publikoko lurak okupatzeagatik:
 - Mahaiak, mahai-tokiak, aulkiak, zoladurak, lorontziak, eguzkitakoak edo antzeko instalazioak, metro koadro edo frakzio bakoitzeko, urtean: 13,81 euro.

- Bere buruari eusten dion egitura, metro koadro edo frakzio bakoitzeko eta urteko: 31,06 euro.
- Egitura erdifinkoa, metro koadro edo frakzio bakoitzeko eta urteko: 41,41 euro.
- Bide publikoan kioskoak instalatzea.
- Udal erabilera publikoko lurretan postuak, barrakak, salmenta-guneak, ikuskizunak, atrakzioak eta horrelakoak instalatzea (kaleko industriak, industria ibiltariak eta zinema-filmaketak barne). Horretarako ezarrita dauden hobariak indarrean segituko dute, zehaztapen hauekin:
 - Irabazi asmorik gabeko udal elkarte eta entitateek ez dute kalez kaleko saltokien tarifa ordaindu beharko.
 - Asteko azokan kalez kaleko salmenta postu baten titular batek ez badu dagokion tarifa ordaintzen, gehienez ere 3 hilabeteko epean, postuaren titulartasunerako eskubidea galduko du eta utzi egin beharko du.
 - Tarifan %50eko hobaria aplikatuko da, telesail baten grabazioa edo filmatzea eta antzeko jarduerak oso-osorik euskaraz egiten direnean.
- Trakzio mekanikoko ibilgailuak udalerriko kaleetan aparkatzea, horretarako erabakitako zonen barruan eta muga jakin batzuekin.
 - Aplikatu beharreko tarifak mahai gainean geldituko dira, Orioko aparkalekuak arautzen dituen udal-ordenantza onartu arte.
- Bide publikoko lurzoru, lurpea eta hegalkinen erabilera pribatiboa eta aprobetxamendu berezia.
- Auto-taxien eta errentako gainerako ibilgailuen lizentziak eta baimenak ematea.
- Udal-administrazioak edo udal-agintariak norbaiten eskariz emandako agiriak.
- Lurzoruari eta antolamendu urbanoari buruzko legeek exijitutako lizentzia urbanistikoak ematea.
- Udal-hilerrian zerbitzuak eta kontzesioak ematea.
- Ibilgailuak geraraztea eta bide publikotik erretiratzea.
- Jarduera-lizentzia ematea eta jardueraren eta instalazioaren funtzionamenduari buruzko ikuskarpenak egitea.
- Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia ematea.

- Udal-pilotalekuaren erabilera eta Orioko Antilla hondartzako kabinen erabilera.
- Orioko Udal Musika Eskolan egindako ikasketak 2021-2022 ikasturtean aplikatu beharreko tarifak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, 94. zenbakian, 2021eko maiatzaren 21ean.
- Udal-kiroldegiko garajeen erabilera.
- Kultur etxeko aretoen erabilera.
- Udalbatzarraren aretoaren erabilera.
- Azurza Etxeko tutoretzapeko apartamentuen erabilera
- Udal-futbol/softbol zelaiaren erabilera.
- Iturriaga jauregian kokatutako Euskal Herriko Done Jakue Bidearen interpretazio-zentroaren erabilera.
- Udaletxeko teilatupeko gelaren erabilera.
- Txu-txu trenaren erabilera eta publizitate-iragarkiak bertan jartzea. Txu-txu trena ez dela alokatuko berresten da.
- Udalaren txosnaren erabilera.
- Udalaren oholtzaren erabilera.
- Mendibeltz futbol/sofbol zelaiaren azpiko garajeen erabilera
- Katea (KTA) eraikineko lokalen erabilera
- Salatxo udal-aretoaren erabilera.
- Udalaren parrillen erabilera.
- Udal-ludotekaren erabilera.
- Arraunetxeko areto nagusiaren erabilera.
- Etxez etxeko zerbitzuaren erabilera.
- Orioko ostalaritza-establezimenduetan zarata-neurketaren erabilera.

8.- Kontuan hartuta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera mankomunatu zela zaborrak eta hondakin solido urbanoak biltzeko zerbitzua, aplikatu beharreko tarifak Urola Kostako Udal Elkarteko Batzar Nagusiak ekitaldi ekonomiko bakoitzerako onartzen dituenak izango dira.

9.- Etxebizitzetxei eta gainerako establezimenduei etxeko eta industriako erabileretarako edateko uraren horniduragatik eta ur harguneengatik aplikatu beharreko tarifak Gipuzkoako Ur Partzuergoaren Batzar Orokorrak ekitaldi ekonomiko bakoitzerako onartzen dituenak izango dira.

10.- Orioko Udalak antolatutako ikuskizun eta emanaldietarako sarrerak ordaintzeko tarifa hauek mantentzea diktaminatu da:

2 €-ko gutxieneko tarifa bat eta 10 €-ko gehieneko tarifa bat ordainduko dira. Dagokion udal-batzorde informatzaileak diktaminatuko du ekitaldi bakoitzaren tarifa, ikuskizuna edo jarduera antolatzeko aurrekontua ikusita.

11.- Udal-baratzeak erabiltzeagatik tarifa hauek onartzea diktaminatu da:

- 40 m²-ko baratzeak: 36,00 euro/urteko
- 60m²-ko baratzeak: 54,00 euro/urteko

12.- Udan ikastaroak eta jarduerak emateagatik tarifa hau onartzea diktaminatu da (UDA kanpaina): Tarifa bakarra ezarri da, 45,00 eurokoa, udan egindako hamabost eguneko ikastaro edo jarduera bakoitzeko.

13.- Tokiko zergei eta zuzenbide publikoko gainerako diru-sarrerari aplikatzeko arau hauek onartzea diktaminatzen da: Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 10. artikuluan xedatutakoa betez, Orioko udalerriko udal-zergak eta zuzenbide publikoko gainerako diru-sarrerak ordainarazteari dagokionez, ez da berandutze-interesik eskatuko borondatezko aldiaren eskatu diren ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko akordioetan, baldin eta horiek aldiaren aldiko muga-eguna duten zorrak badira, modu kolektiboan jakinarazi badira eta horien ordainketa, osotasunean, sortu ziren urte berean egiten bada.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2021eko irailaren 16 eta 23an emandako diktamenak ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA ordenantza fiskalen eta beren eranskinen aldaketari, eragina 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izango duena, erabaki honen azalpenean jasota dauden terminotan.

2.- JENDAURREAN JARTZEA erabaki hau eta hasitako espedientea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduaren 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan iragarkiak argitaratuz, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Udaletxeko idazkaritzan.

b) Espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkezteko epea: 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita; betiere, bulego-orduetan.

c) Erreklamazioa aurkez dezaketenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

d) Aurkezteko lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

e) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkezten ez bada, hartutako erabakiak eta aldatutako ordenantzen eranskinak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, AGITAX GIPUZKOAKO TAXI ELKARTEAK BIDALITAKO 2022RAKO TAXI-TARIFA URBANOAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; Taxiaren Gipuzkoako Elkarteak eskaria aurkeztu du, 2022an Orioko auto-taxi zerbitzuaren tarifak %2,9 igotzea proposatuz.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2021eko irailaren 23an egindako proposamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

Orioko auto-taxi zerbitzuaren tarifak %2,9 igotzea 2022an. Tarifak hauek dira onartu direnak:

AUTO-TAXI ZERBITZUAREN TARIFA URBANOAK 2022			
PROPOSAMENA	GUTXIENKO TARIFA	KILOMETRO BAKOITZEKO	ITXOITEN PASATAKO ORDUA
1. TARIFA*	5,6368	1,2029	22,9727
2. TARIFA**	6,7099	1,9185	37,4983

Gutxieneko tarifaren barruan sartuta daude ibilbideko 1,5 kilometro edo itxoiten pasatako 5 minutu.

(*) Tarifa hau lanegunetan aplikatuko da, 07:00etatik 22:00etara.

(**) Tarifa hau egunero aplikatuko da, 22:00etatik 07:00etara. 2. tarifa aplikatuko da, baita ere, igandetan, larunbatetan eta jaiegunetan, eta abenduaren 24an eta 31n, 07:00etatik 22:00etara.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, HERRI-BARATZETAKO TARIFAK 2021. URTERAKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2021eko irailaren 23an egindako proposamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA herri-baratzetako tarifak 2021. urterako, ondoren zehazten den eran eta 2021eko irailetik abendura bitartean:

- 40 m²-ko baratzea: 12€
- 60m²-ko baratzea: 18€

Bestalde, aurrerantzean aplikatu beharreko urteko tarifak hauek dira:

- 40m²-ko baratzea: 36 €/urteko
- 60m²-ko baratzea: 54 €/urteko

8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ZAHARREN BABESLEKUA TABERNA-JATETXEAREN ZERBITZUA ETA GARBIKETA- ETA MANTENTZE-ZERBITZUA PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN ETA BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ingurumena, Obra eta Zerbitzuak batzordeak 2021eko irailaren 27an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA Orioko Zaharren babeslekua taberna-jatetxearen zerbitzua eta garbiketa-eta mantentze-zerbitzua prozedura ireki bidez kontratatzeiko baldintza administratibo partikularren eta baldintza teknikoek agiriak.

Emandako botoa azaltzeko txandan, Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza eta eskerrak ematen dizkie Juanjo eta Mertxe Curiel anai-arrebei azken hamar urteotan Orioko Zaharren Babeslekuaren taberna-jatetxe, garbiketa- eta mantentze-zerbitzua emateagatik. Adierazten du, Orioko Antilla hondartzako hiru eraikinen eta udal-

kanpineko tabernaren eta supermerkatuaren kontzesio administratiboen kasuan bezalaxe, garaia iritsi dela Orioko Zaharren Babeslekuaren taberna-jatetxe, garbiketa- eta mantentze-zerbitzuaren lizitazioa egiteko, zerbitzu horren kontratazio publikoa kontzesio administratiboko erregimenean egiteko, kontuan hartuta Herriko Plazaren errealitatea asko aldatu dela azken urteotan egindako berrurbanizazio-obrak direla-eta.

Beñat Solaberrieta zinegotziak hartzen du hitza, Ingurumen, Obra eta Zerbitzuak batzordeko burua den aldetik, eta adierazten du baldintza administratibo partikularren eta baldintza teknikoen agiriak behar bezala aztertu eta eztabaidatu direla batzordeak egindako bost edo sei bilkuratan. Adierazten du, baita ere, helburua beti izan dela hirugarren adinekoen eskaerak babestea, eta prestazioaren baldintza teknikoei eman zaiela lehentasuna baldintza ekonomikoen aldean. Bukatzeko, adierazten du lizitazioaren deialdia inplikaturako eragile guztien adostasunarekin atera dela aurrera, batzordeko diktamenak aho batez hartu direla eta, beraz, espero duela Orioko Zaharren Babeslekuan gertatuko den erreleboa egokia eta onuragarria izango dela guztiontzat.

Alkateak hartzen du hitza berriro, eta adierazten du Udalak ahalegin handia egin behar izan duela Orioko Zaharren Babeslekuko taberna-jatetxe, garbiketa- eta mantentze-zerbitzuaren lizitazioaren agiriak prestatzeko eta bilera ugari egin behar izan direla Juanjo eta Mertxe Curiel oraingo zerbitzu-emaileekin eta Zaharren Babeslekuko presidentearekin, zerbitzuaren prestazioa gaur egungo araudira egokitzeko, kontuan hartu behar baita orain arte zerbitzu-emaileak ez ziola inolako kanonik ordaintzen Orioko Udalari eta hornidura-gastu guztiak (energia, ura, berokuntza...) Udalak ordaintzen zituela.

Lourdes Salsamendi zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza, eta adierazten du orain aztertzen ari garen gaian ez zaiola lehentasunik eman alderdi ekonomikoari, Udalak kontzesioan ematen dituen beste antzeko zerbitzuetan ez bezala (Antilla hondartzako eraikinetan baimendutako ostalaritza-zerbitzuak, udal-kanpineko taberna-supermerkatuaren zerbitzua...). Adierazten du, baita ere, eskerrak eman nahi dizkiela Juanjo eta Mertxe Curiel anai-arrebei eta Zaharren Babeslekuan zerbitzua ematen aritu diren beste langileei. Azkenik, adierazten du aurrerantzean ere Udalak harreman estua izan beharko duela Zaharren Babeslekuko zuzendaritzarekin.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak (ORAIN) hartzen du hitza, eta eskerrak ematen dizkie Juanjo eta Mertxe Curiel anai-arrebei, azken hamar urteotan egin duten lanagatik. Adierazten du, baita ere, aipatzekoa dela Juanjok eta Mertxek, herriko traineruari egindako errezibimenduetan, beti doan eman izan dituztela tortillak. Adierazten du, baita ere, kontratazio publikoaren baldintza-orri berrietan aurreikusita dagoela Zaharren babeslekuko taberna-jatetxea astean behin ixtea, eta berak eskatzen duela ixteko egun hori ez izatea asteartea. Beñat Solaberrieta zinegotziak konpromisoa hartzen du gai hori aztertu eta Ingurumen, Obra eta Zerbitzuak batzordean diktaminatzeko.

Azkenik, Ana Priede zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza, eta eskerrak eman nahi dizkie, baita ere, Juanjo eta Mertxe Curiel anai-arrebei azken hamar urteotan

egindako lanagatik. Adierazten du, baita ere, beharrezkoa zela lehiaketa publiko hau egitea Orioko Zaharren Babeslekuko taberna-jatetxea, garbiketa- eta mantentze-zerbitzua kontratatzeko, indarrean dagoen araudia betetzeko, konkurrentzia librea bermatzeko eta zerbitzua hobetzeko.

9.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez ziren izan.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,